



LUIS INTXAUSPE AROZAMENAK, Garbitania Zero Zabor S.M. sozietateko
Administrazio Kontseiluko idazkariak, honako hau

ZIURTATZEN DU

Garbitania Zero Zabor S.M.ko Administrazio Kontseiluak, 2018ko urriaren 29an
agindako bilkuran ondorengo ERABAKIA hartu zuela:

AURREKARIAK:

Hernaniko eta Usurbilgo udalerritan selektiboki jasotako bio-hondakinen transferentzia
zerbitzua kontratatzeko espedienteari (00004-2018) hasiera emateko eskaera **2018ko
uztailaren 11an** egindako Administrazio Kontseiluan onartu zen eta ondoren
kontratazio mahaiak plegu administratiboak eta teknikoak prestatu zituen. Plegu
horiek 2018 irailaren 20an egin zen Administrazio Kontseiluak onartu zituen.

SPKL-ak bere 156 artikuluan arautzen duen prozedura irekia tramitatu eta lizitazioaren
iragarkia 2018ko irailaren 21ean argitaratu zen Garbitaniaren webguneko eta
Euskadiko Kontratazio Plataformako kontratatzailearen profilean. Esan behar da
eskaintzak aurkezteko epean EZ dela lizitatzailerik aurkeztu.

Garbitaniaren Kontratazio mahaiak **2018ko urriaren 18an** egindako bilkuran
espedientearen egoeraren berri izan du eta teknikarien azalpenak eta SPKL-k jasotzen
duen publizitaterik gabeko prozedura negoziatua tramitatzeko baldintzak ez direla
ematen kontuan izanda (prozedura irekia tramitatu da, ez da lizitatzailerik aurkeztu eta
kontratuaren baldintzak aldatu egin behar dira prezioari dagokionez, hori izan baita
inor ez aurkeztearen arrazoia aktan jaso bezala), ondorengoak erabaki ditu:

Lehenengoa.- Kontratazio Organoari proposatzea hurrengo bileran 0004-2018
espedientea hutsik gelditu dela aitortzea eta **prozedura ireki berri bat abian jartzea**
erabakitzea pleguetan jasotzen diren kontratuaren balio zenbatetsia eta lizitazio
prezioa igoz.

Hortaz, Garbitania Zero Zabor S.M.ko Administrazio Kontseiluak urriaren 29an burutu
bilkuran, kontratazio mahaiaren eskariz honakoak adostu ditu:

Lehenengoa.- 2018ko uztailaren 11an Administrazio Kontseilu honek emandako
ebazpenaren bidez hasitako 0004-2018 espedientean lizitaziorako jarraitu den
prozedura irekia hutsik gelditu dela aitortzea jendaurreko epealdian proposamenik ez
delako aurkeztu.

Bigarrena.- Kontratazio mahaiaren azalpenak aintzat hartuta, **prozedura ireki berri bat**
abian jartzea eta kontratazio mahaiak idatzi dituen **plegu berriak onartzea.**

Hernanin, 2018ko urriaren 30ean

O.I.

LEHENDAKARIA

IDAZKARIA